

IRRIBERRI elkartasunean oinarritutako ekimen soziala da, aho-osasunaren arloan dagoen desberdintasunari erantzuna ematea helburu duena. Hortz-protesiak behar dituzten pertsona askok ezin dute tratamendu hori eskuratu arrazoi ekonomikoengatik, eta horrek ondorio larriak ditu ez bakarrik osasun fisikoan, baita ongizate emozionalean eta gizarte-bizitzan ere. Hortzen galerak eta irribarrearen faltak, askotan, lotsa, segurtasun eza eta isolamendua eragiten ditu, eta egoera horrek pertsonen lan-aukerei, harreman sozialei eta autoestimari eragiten die zuzenean. Testuinguru horretan sortzen da Irriberrri, behar erreal bati irtenbide gizatiar eta eskuragarria emateko.

Irriberriren balore-proposamena ez da produktu edo zerbitzu zehatz batean oinarritzen, baizik eta hortz-protesien inguruan sortzen den konponbide integral batean. Alde batetik, balore kuantitatiboa eskaintzen du, hortz-protesiak merkatuan dauden aukerekin alderatuta kostu askoz txikiagoan eskainiz. Horri esker, baliabide gutxiko pertsonak bestela lortu ezingo luketen tratamendu funtzional bat jasotzen dute, aho-osasuna hobetuz eta eguneroko jardueretan normaltasuna berreskuratuz, hala nola jatea, hitz egitea edo irribarrea egitea.

Hala ere, Irriberriren baliorik handiena kualitatiboa da. Irribarrea berreskuratzeak eragin zuzena du pertsonen autoestimuan, segurtasunean eta gizarte-harremanetan. Proiektuak laguntzen du itxura fisikoagatik sortzen diren estigma sozialak, bullying egoerak eta diskriminazioa murrizten, eta pertsonak berriro ere gizartean aktiboki parte hartzera bultzatzen ditu. Hortz-protesi bat ez da hemen helburu hutsa; duintasuna, konfiantza eta bizi-kalitatea berreskuratzekeo tresna bihurtzen da.

Bestalde, Irriberririk balio hezitzaile eta profesional oso garrantzitsua sortzen du. Lanbide Heziketako ikasleek proiektuan parte hartzen dute praktika moduan, benetako kasuekin lan eginez eta aditu tituludunen gainbegirapearekin. Horrek aukera ematen die ikasleei ezagutza teknikoak aplikatzeko ez ezik, erantzukizuna, lan-etikaren garrantzia eta gizarte-konpromisoa barnerratzeko ere. Esperientzia horrek ikasleen prestakuntza osatzen du, eta etorkizuneko profesional gisa duten ikuspegia aberasten du, gizarte-zerbitzuaren balioa lehen lerroan jarritz.

Era berean, Irriberrri komunitate-ikuspegia duen proiektua da. Profesionalen, ikasleen eta onuradunen arteko lankidetzak elkartasunezko sare bat sortzen du, non pertsona bakoitzak bere ekarpena egiten duen ongizate kolektiboa hobetzeko. Istorio errealeen bidez, proiektuak gizartean ikusarazten ditu aho-osasunarekin lotutako desberdintasunak eta horien ondorioak, kontzientzia soziala piztuz eta enpatia sustatuz.

Azken finean, Irriberriren balore-proposamena da irribarrearen bidez pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, osasuna, hezkuntza eta elkartasuna uztartzen dituen eredu jasangarri baten bitartez. Proiektuak benetako konponbidea eskaintzen die bai laguntza jasotzen duten pertsoneri, bai etorkizuna eraikitzen ari diren ikasleei. Irriberrri-n, irribarre bakoitza aldaketa-aukera bat da: pertsonentzat, berriro ere duin eta seguru sentitzeko; eta ikasleentzat, balioetan oinarritutako ibilbide profesional bat eraikitzeko.